



Autorretratu kubista

Hezkuntza plastikoa, ikusizkoa eta ikus-entzunezkoa

DBHko 3. maila



Irakaslearentzako ikas-egoeraren gida

Inplikaturiko ikasgaiak:

Hezkuntza plastikoa, ikusizkoa eta ikus-entzunezkoa.

Irakaslea: Jonan Gomez Barrenetxea

Saio kopurua:

16 saio

Ikas-egoeraren markoa:

Ikasleak, ikusizko baliabide jakin batzuk landuta, bere autorretratu egingo du. Ikasleak bere izaera adieraziko du autorretratu kubista baten bitartez. Egindako lanekin, Ikastolan erakusketa bat egingo dugu.

A. Testuingurua:

Arazoa ikas-ingurunean kokatzen da, eta ikasleari, norberaren adierazpena egitea eskatzen zaionez, testuinguru pertsonalean ere eragiten du. Erakusketaren bitartez, landutako ikas-egoerak ingurune sozialean eragina izan dezan nahi dugu.

Ikas-egoera honek Lauro 2030 Agenda-planan zehaztutako hainbat ekimenekin harremana du, ikas-egoera gure testuinguruan kokatuz.

Ikas-egoeran 2030 Agenda-planan 11. GJHan zehaztuta ditugun bi helmuga hauek garatuko ditugu: **11.3 Ikastolako ingurunea inklusiboa eta jasangarria areagotzea, eta baita giza kokaguneen kudeaketa parte-hartzailea, integratua eta jasangarria ere, eta 11.7 Ikastolako berdegune eta espazio publikoak, inklusiboak eta irisgarriak izateko aukera ematea, bereziki, emakumeentzat, haurrentzat, adinekoentzat eta aniztasunen bat duten pertsonentzat.**

Helmuga hauek lortzeko, 11.3 eta 11.4 ekimenak lantzen ditugu: **11.3 Ikastolako ingurunea etapa guztietako ikas-irakaskuntza jardueretan erabiltzea, eta 11.4 Ikastolako zenbait gunetan, etapa, maila eta arlo desberdinetako ikasleek sortutako lanen erakusketak egitea.**

Lauro 2030 Agenda-planan, 4. GJHan, KALITATEZKO HEZKUNTZAn, helmuga hau zehaztuta dugu: **4.7 Ikasle guztiek garapen jasangarria sustatzeko beharrezkoak diren ezagutza teorikoak eta praktikoak eskuratzen dituztela ziurtatzea, besteak beste, garapen jasangarrirako eta bizi-estilo jasangarrietarako, giza eskubideetarako, genero-berdintasunerako, bakearen eta indarkeriarik ezaren kulturaren sustapenerako, munduko herritartasunerako eta kultura-aniztasunaren baloraziorako.** Helmuga hau lortzeko, 4.1 ekimena lantzen dugu: **4.1 Etapa guztietako ikasketa-planetan eta kurrikulumean GJHak txertatzea, Garapen Jasangarrirako Hezkuntzaren irizpideei jarraituz.**

**B. Abiapuntua:**

Ikas-egoeraren erronka nagusia **Autorretratu Kubisten** erakusketa bat antolatzea izango da. Kubismoan erabilitako ikusizko baliabideen azterketa eta erabilera egiteaz gain, Kubismoan eta Artearen Historian, emakumezkoek egindako artelanen inguruan azterketa eta hausnarketa egingo dugu. Emakumezko artista kubisten lanak erreferentzia gisa erabiliko ditugu. Ikas-egoera honetan, beraz, Garapen Jasangarrirako 5. Helburua, GENERO-BERDINTASUNA, ere landuko dugu.

Lauro 2030 Agenda-planan, 5. GJHan, GENERO-BERDINTASUNean, helmuga hauek zehaztuta ditugu: **5.1 Emakume eta neskatuen aurkako diskriminazio modu guztiekin amaitzea, 5.5 Ikastolako esparru guztietan emakumeen parte-hartze osoa eta eraginkorra ziurtatzea, baita lidergoko aukera-berdintasuna ere, maila erabakitzaile guztietan.** Helmuga hauek lortzeko, 5.5 ekimena lantzen dugu: **5.5 Etapa desberdinetako ikasarloetan genero-berdintasunarekin harremana duten gaiak lantzea: DBH 4 Etika, DBH 1, 2 eta 3 Plastika, DBH 4 eta Batxilergo 1 eta 2 Enpresa eta Ekonomia...**

Lauro 2030 Agenda-planako 9. GJHko 9.4 helmuga landuko dugu: **9.4 Ikastolako azpiegiturak modernizatzea, jasangarriak izan daitezen, eraginkortasun handiagoko baliabideak erabiliz eta teknologia eta prozesu garbiak eta ingurumenaren ikuspegitik arazoizkoak erabiliz.** Horretarako ekimen hauek garatuko ditugu: **9.2 LHko ikasleek ChromeBook eta DBH eta Batxilergoko ikasleek iPada ikasketa tresna bezala erabiltzea eta 9.8 Ikastolako pertsonen lanen erakusketak egiteko IKT eta Internetez baliatzea.**

Ikasleek euren zirriborroak eta irudiak egiteko, Plastika gelan ditugun erabilitako orriak berrerabiltzeko aukera izango dute, Lauro 2030 Agenda-planako 12. GJHan zehaztuta ditugun bi helmuga hauek garatuz: **12.5 Nabarmen murriztea hondakinen sorrera, prebentzio, murrizketa, birziklatze eta berrerabilpen-jardueren bitartez. 12.8 Ikastolako pertsonak beharrezko informazioa eta ezagutzak badituztela bermatzea, garapen jasangarrirako eta naturarekin bat datorren bizi-estiloa edukitzeko.** Helmuga hauek lortzeko, 12.3 ekimena lantzen dugu: **12.3 Hondakinen kudeaketa jasangarria egitea: plastikoa, papera eta kartoia, pilak, konposta eta antzerako hondakinen birziklapena eta berrerabilpena bultzatuz.**

Ikas-egoeran Garapen Jasangarrirako Helburu hauek landuko ditugu:





C. Azken ekoizpena:

Ikasleek, ekoizpen desberdinak sortuko dituzte: alde batetik, erakusketa bat antolatzea eta, gidari moduan, azaltzea; eta bestetik, informazio-liburuxkak egitea (norberaren portfolio digitala), artea bitarteko gisa erabiliz. Ikasleen zirriborroekin, azken emaitzen argazkiekin eta portfolio digitalekin, erakusketa plastikagela.com webgunean ere argitaratuko da dera digitalean.

Ekoizpenetan ondorengoak agertuko dira:

- Bai erakusketan bai norberaren portfolio digitalean, proiektuan zehar jarraitutako prozesua agertu eta azalduko da: hasierako ideia, erreferentziak, zirriborroak, landutako edukiak eta azken emaitza.
- Bai erakusketan bai norberaren portfolio digitalean, irudiak sortzeko erabilitako ikusizko baliabideen azalpenak agertu eta azalduko dira.

Proposamenaren justifikazioa:

A. Proposamenaren xedea:

Proposamen hau ikasleentzat garrantzitsua da ikusizko baliabide jakin batzuk erabiltzen ikasi eta landuko dituztelako, eta prozesuan sortutako lanekin erakusketa bat antolatzen ikasiko dutelako. Ikas-egoeran bultzatzen den ikaskuntza nagusia proiektu artistiko bat burutzeko urratsak lantzea da, hasierako ideiatik azken emaitzaraino. Prozesuan zehar egindako lanarekin, erakusketa kolektibo bat antolatuko da.

B. Argudiaketa kurrikularra: (Taulan).

C. Helburu didaktikoak:

- Kubismo estiloko irudiei buruzko informazioa bilatzea eta estrategia egokiak erabiliz hautatzea.
- Kubismoaren ezaugarriak eta adierazpen artistikoak ezagutzea.
- Kubismo estiloko irudietan ikusizko baliabideak identifikatzea, sailkatzea eta hauen azterketa egitea genero-isuririk gabe, jakin-mina, sentsibiltatea eta errespetua erakutsiz.
- Kubismo estiloko ikusizko baliabideak identifikatzea, sailkatzea eta era egokian erabiltzea irudiak sortzeko.
- Kubismoan emakumeak zuen paperaz jabetzea eta baloratzea.
- Sormen prozesuan zehar egindako lanaren autoebaluazioa egitea hobekuntzak egiteko proposamenak aztertuz eta beharrezkoak diren egokitzapenak eginez azken emaitza egokia lortzeko.
- Proiektuan zehar lortutako emaitzekin, taldean *Autorretratu kubista* erakusketa antolatzea eta bisitariari burtutako prozesua, kubismoaren ezaugarriak eta lortutako emaitzak azaltzea.



Argudiaketa kurrikularra

Funtsezko Konpetentziak	Deskriptore operatiboak	Konpetentzia espezifikoak	Ebaluazio-irizpideak	Oinarrizko jakintzak
HIZKUNTZA-KOMUNIKAZIOR AKO KONPETENTZIA (HKK) KONPETENTZIA ELEANIZTUNA (KE) KONPETENTZIA DIGITALA (KD) KONPETENTZIA PERTSONALA, SOZIALA ETA IKASTEN IKASTEKOA (KPSII) HERRITARTASUN ERAKO KONPETENTZIA (HK) KONTZIENTZIA ETA ADIERAZPIDE KULTURALERAK O KONPETENTZIA (KAKK)	HKK1 KE1 KD1 KPSII1, KPSII3 HK1, HK3 KAKK1	1. Zenbait adierazpen plastiko, ikusizko eta ikus-entzunezko hartze aktiboaren bidez eta hainbat tresnaren erabileraren bitartez ezagutzea eta baloratzea, genero-isuririk gabe, jakin-mina, sentsibilitatea eta errespetua erakutsiz, pentsamendu kritikoa garatzeko eta ondarea kontserbatu beharra ulertzeko.	1.1. Hainbat iturritatik produkzio plastiko eta ikusizko artistikoei buruz bildutako informazioa hautatzea, bereizgarri dituzten elementu nagusiak analizatuz eta pentsamendu kritikoa garatuz, jakin-mina, sentsibilitatea eta errespetua erakutsiz. 1.2. Zenbait produkzio plastiko eta ikusizkoen inguruko testuingurua ezagutzea, baita horren funtzioa eta xedea ere, ahoz eta/edo idatziz deskribatuz, hiztegi espezifikoa erabiliz, interesa eta errespetua erakutsiz.	Artearen historian zeharreko genero artistikoak, genero-ikuspegitik. (A1)



Funtsezko Konpetentziak	Deskriptore operatiboak	Konpetentzia espezifikoak	Ebaluazio-irizpideak	Oinarrizko jakintzak
HIZKUNTZA-KOMUNIKAZIORAKO KONPETENTZIA (HKK)	HKK1	2. Norberaren eta bere gisakoen produkzioak ikertzea, analizatzea eta azaltzea, ondareko produkzio artistikoak eta ondarea osatzen dutenak erreferentzia gisa erabiliz, interesa erakutsiz eta hizkuntza artistikoen ezaugarriak kontuan hartuz, kultura-aniztasunarekiko errespetua garatzeko, kultura artistiko zabala eraikitzeke eta imajinarioa bera elikatzeke.	2.2 Hainbat produkzio artistiko, norberarenak eta bere gisakoenak barne, modu gidatuan analizatzea, munduranzko begirada estetiko irekia garatuz eta aniztasuna errespetatuz.	Ikusizko elementuak, kontzeptuak eta adierazpen-aukerak: forma, kolorea eta ehundura. (A2)
KONPETENTZIA ELEANIZTUNA (KE)	KE3			
KONPETENTZIA DIGITALA (KD)	KD1			
KONPETENTZIA PERTSONALA, SOZIALA ETA IKASTEN IKASTEKOA (KPSII)	KPSII3			
HERRITARTASUN ERAKO KONPETENTZIA (HK)	HK1, HK3			
KONPETENTZIA KONTZIENTZIA ETA ADIERAZPIDE KULTURALERAKO KONPETENTZIA (KAKK)	KAKK1, KAKK2			Konposizioa. Orekaren, proportzioaren eta erritmoaren kontzeptuak, formak planoan eta espazioan antolatzeari aplikatuak. (A2)



Funtsezko Konpetentziak	Deskriptore operatiboak	Konpetentzia espezifikoak	Ebaluazio-irizpideak	Oinarrizko jakintzak
KONPETENTZIA ELEANIZTUNA (KE) MATEMATIKARAKO KONPETENTZIA eta ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA INGENIERITZARAKO KONPETENTZIA (STEM) KONPETENTZIA DIGITALA (KD) KONPETENTZIA PERTSONALA, SOZIALA ETA IKASTEN IKASTEKOA (KPSII) EKINTZAILTZAKONPETENTZIA (EK) KONTZIENTZIA ETA ADIERAZPIDE KULTURALERAKO KONPETENTZIA (KAKK)	KE2 STEM1 KD2 KPSII1, KPSII4, KPSII5 EK3 KAKK3, KAKK4	3. Hizkuntza plastiko, ikusizko eta ikus-entzunezkoekin esperimintatzea eta proposamen pertsonalak sortzea, ikerketaren eta praktikaren bitartez, ideiak, sentimenduak eta emozioak modu sortzailean adierazteko eta komunikatzeko, eta hobetzeko gaitasuna, autoestimua eta autokritika jarrera irekiarekin garatzeko.	3.1 Bere ideiak eta sentimenduak esperimintazioaren bidez azaleratzea, norberaren adierazpen-xedeetarako material, tresna, euskarri eta teknika egokiak erabiliz, bere pentsamendu sortzailea eta pertsonala aberastuz. 3.2 Norberaren bizipenak eta munduaren ikuskera sormenez irudikatzea, norberaren imajinaria eta sentsibilitatera joaz, bere mugak gainditzen ahaleginduz, norberaren eta bere gisakoen ezagutza areagotuz, baita bere autoestimua ere.	Prozesu sortzailearen faktoreak eta etapak: materialak eta teknikak hautatzeko eta bozetoak egiteko estrategiak. (B1) Akatsa hobetzeko eta ikasteko aukera bezala ikustea. (C) Ahalegina helburuak lortzeko metodoa eta bidea. (C) Pentsamendu kritikoa eta dibergentea garatzea. (C)



Funtsezko Konpetentziak	Deskriptore operatiboak	Konpetentzia espezifikoak	Ebaluazio-irizpideak	Oinarrizko jakintzak
HIZKUNTZA-KOMUNIKAZIOR AKO KONPETENTZIA (HKK) KONPETENTZIA ELEANIZTUNA (KE) MATEMATIKARAKO KONPETENTZIA eta ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA INGENIERITZAR AKO KONPETENTZIA (STEM) KONPETENTZIA DIGITALA (KD) KONPETENTZIA PERTSONALA, SOZIALA ETA IKASTEN IKASTEKOA (KPSII) HERRITARTASUN ERAKO KONPETENTZIA (HK) EKINTZAILETZA-KONPETENTZIA (EK) KONTZIENTZIA ETA ADIERAZPIDE KULTURALERAKO KONPETENTZIA (KAKK)	HKK1 KE2 STEM1, STEM3, STEM5 KD2, KD3, KD4 KPSII3, KPSII4, KPSII5 HK3 EK1, EK2, EK3 KAKK3, KAKK4	4. Kolaborazioko produkzio kultural eta artistikoen diseinuan, elaborazioan, argudiatzean eta zabalkundean parte hartzea, prozesuari balioa emanez eta azken emaitza lortzeko zenbait rol bere gain hartuz, sormena, autorearen nozioa eta pertenezkiaren zentzua garatzeko.	4.1. Komunikazio-asmoa duten produkzioak modu kolaboratiboan eta sormenez garatzea, prozesu sortzailea planifikatuz eta zenbait rol bere gain hartuz prozesuaren etapetan zehar. 4.2. Proiektu artistikoen elaborazio-prozesua eta azken emaitza erakustea, besteen iritzia baloratzuz.	Portaera-arauak eta jarrera positiboa proposamen grafiko-plastikoak, diseinukoak hartzean eta sortzean. (C)



Jardueren sekuentzia laburra eta ebaluazio-adierazleak (irakaslearentzako)

A. Hasierako fasea:

Jarduera	Ebaluazio-adierazleak	Ebaluazio-tresnak
<p>Ikas-egoeraren azalpena egitea.</p> <p>Kubismoari buruzko eta kubismo estiloko irudiei buruzko informazioaren bilketa eta hautaketa nola egin azaltzea.</p>	<p>Ea ikasleak ikas-egoeraren atal desberdinak identifikatzen dituen eta ekarpenak egiten dituen.</p>	<p>Irakaslearen behaketa.</p>
<p>Kubismo estiloko irudiak eta hauei buruzko informazioa hautatu, bildu eta aurkeztea.</p>	<p>Ea ikasleak hainbat iturritatik kubismoko irudiak identifikatzen dituen eta informazioa bildu eta hautatzen duen.</p>	<p>Baliabide digitalen eta norberaren ardurak ebaluatzeko errubrika.</p>
<p>Kubismoa eta bere ezaugarriei buruzko informazioaren bilketa eta hautaketa egitea.</p>	<p>Ea ikasleak proposatutako baliabideak erabiltzen dituen.</p>	<p>Irakaslearen behaketa.</p>
<p>Kubismo estiloko irudien azterketa egitea.</p>	<p>Ea ikasleak irudietan kubismoaren bereizgarri dituzten elementu nagusiak eta ikusizko baliabideak identifikatzen, sailkatzen eta era egokian aztertzen dituen.</p>	<p>Irudien azterketan ikaslearen parte hartzea eta ekarpenak ebaluatzeko errubrika.</p>
<p>Socratico aplikazioaren bitartez kubismo estiloko irudi zehatz batzuen azterketa egitea.</p>	<p>Ea ikasleak irudien azterketan genero-ikuspegia kontuan hartzen duen eta jakin-mina, sentsibilitatea eta errespetua erakusten duen.</p>	<p>Irudien azterketan ikaslearen parte hartzea eta ekarpenak ebaluatzeko errubrika.</p>
	<p>Ea ikasleak irudietan kubismoaren ezaugarri nagusiak identifikatzen, sailkatzen eta era egokian aztertzen dituen.</p>	<p>Socratico aplikazioaren bidezko galdetegia eta norberaren ardurak ebaluatzeko errubrika.</p>

**B. Garapen fasea:**

Jarduera	Ebaluazio-adierazleak	Ebaluazio-tresnak
Autorretratu kubista egiteko hastapenak.	Ea ikasleak bere ideiak eta planteamenduak esperimazioaren bidez azaleratzen dituen.	Ikaslearen planteamendua eta zirriborroak eta planifikazioa ebaluatzeko errubrika.
Hasierako ideiak eta zirriborroak. Pentsamenduan Oinarritutako <i>Atalak eta osotasuna</i> Trebetasuna.	Ea ikasleak bere adierazpen-xedeetarako material, tresna, euskarri eta teknika egokiak erabiltzen dituen bere pentsamendu sortzailea eta pertsonala aberastuz.	Ikaslearen planteamendua eta zirriborroak eta planifikazioa ebaluatzeko errubrika.
Prozesuan zehar egindako lanaren ebaluazioa eta autoebaluazioa.	Ea ikasleak norberaren eta bere kideen produkzio artistioak munduranzko begirada estetiko irekia garatuz eta aniztasuna errespetatuz modu gidatuan analizatzen eta identifikatzen dituen.	Ikaslearen parte hartzea eta ekarpenak ebaluatzeko errubrika. Ikaslearen planteamendua eta zirriborroak eta planifikazioa ebaluatzeko errubrika.
Sormen prozesuaren ebaluazioaren ondoren, hobekuntzak egiteko proposamenak aztertzea eta beharrezkoak diren egokitzapenak egitea.	Ea ikasleak norberaren bizipenak eta munduaren ikuskera sormenez irudikatzen dituen eta bere mugak gaintzen ahalegintzen den.	Ikaslearen planteamendua eta zirriborroak eta planifikazioa ebaluatzeko errubrika.
Hobekuntzak ezarri ondoren, eta horretarako landutako zirriborroetan oinarrituz, azken emaitza lantzea.	Ea ikasleak proiektu artistikoaren elaborazio-prozesua eta azken emaitza era egokian lantzen dituen.	Ikaslearen planteamendua, zirriborroak eta azken emaitza eta planifikazioa eta sormen prozesua ebaluatzeko errubrika.

**C. Azken fasea:**

Jarduera	Ebaluazio-adierazleak	Ebaluazio-tresnak
Portfolioak egitea: paperean eta digitala.	<p>Ea ikasleak proiektu artistikoaren elaborazio-prozesua eta azken emaitza era egokian erakusten dituen eta besteen iritzia baloratzen duen.</p> <p>Ea ikasleak portfolioa egiteko baldintzak betetzen dituen.</p>	<p>Ikaslearen portafolioa: planteamendua, zirriborroak eta azken emaitza eta planifikazioa eta sormen prozesua ebaluatzeke errubrika.</p> <p>Ikaslearen portafolioa: planteamendua, zirriborroak eta azken emaitza eta planifikazioa eta sormen prozesua ebaluatzeke errubrika.</p>
Proiektua eta azken emaitza aurkeztea.	<p>Ea ikasleak proiektu artistikoaren elaborazio-prozesua eta azken emaitza era egokian erakusten eta azaltzen dituen eta besteen iritzia baloratzen duen.</p>	<p>Ikaslearen portafolioa: planteamendua, zirriborroak eta azken emaitza eta planifikazioa eta sormen prozesua ebaluatzeke errubrika.</p>
Kideen proiektuak aztertzea eta baloratzea.	<p>Ea ikasleak kideen proiektu eta irudietan ikusizko oinarrizko balaibideak eta kubismoaren ezaugarriak identifikatzen, sailkatzen eta era egokian aztertzen dituen eta genero-ikuspegia kontuan hartzen duen.</p>	<p>Ikaslearen parte hartzea, azalpenak eta ekarpenak ebaluatzeke errubrika.</p>



Jarduera	Ebaluazio-adierazleak	Ebaluazio-tresnak
Taldean Autorretratu kubista erakusketa antolatzea.	<p>Ea ikasleak komunikazio-asmoa duten produkzioak modu kolaboratiboan eta sormenez garatzen dituen, prozesu sortzailea planifikatuz eta zenbait rol bere gain hartuz prozesuaren etapetan zehar.</p> <p>Ea ikasleak proiektu artistikoaren elaborazio-prozesua eta azken emaitza era egokian erakusten dituen eta besteen iritzia baloratzen duen.</p>	<p>Ikaslearen parte hartzea, azalpenak eta ekarpenak ebaluatzeko errubrika.</p> <p>Ikaslearen parte hartzea, azalpenak eta ekarpenak ebaluatzeko errubrika.</p>
Taldean Autorretratu kubista erakusketaren bisita gidatuak eta azalpenak.	<p>Ea ikasleak proiektu artistikoaren elaborazio-prozesua eta azken emaitza era egokian erakusten eta azaltzen dizkien bisitariei eta besteen iritzia baloratzen duen.</p>	<p>Ikaslearen parte hartzea, azalpenak eta ekarpenak ebaluatzeko errubrika.</p>



Metodologia:

A. Printzipioak (IDU, modelo pedagogikoa...):

Arazoa planteatu ondoren, ebazpena lortzeko proiektua burutuko dugu. [PBI Proiektuen Bidezko Ikaskuntza](#) aplikatuko dugu epe laburreko proiektu hau burutzeko.

Behar izanez gero, **flipped classroom** modeloa landuko dugu, aste batetik bestera, emandako orientabideei jarraituz, ikasleei informazio bilketa eta ikerketa egitea eskatu ahal zaie, informazio horrekin hurrengo saioan, ikasgelan lan praktikoa egiteko.

Erakusketa talde osoaren artean antolatuko dugunez, beharizanen arabera, ikasketa kooperatiboaren estrategiak erabiliko ditugu.

Pentsamenduan Oinarritutako Trebetasuna. Ikas-egoera honetan *Atalak eta osotasuna* landuko dugu.

B. Antolakuntza:

DBHko 3. mailan, astean behin, Plastika arloko 50-55 minututako saioa izango dugu.

Saioak Plastika gelan izango dira, ikasleak hiru-lau kideko mahai handietan antolatuz. Taldekatze mota honek ikasleei modu kooperatibo-kolaboratiboan lan egiteko aukera emango die, ezagutzak, irudiak, baliabideak eta abar partekatuz. Erakusketa talde osoaren artean antolatzerako orduan, hiru-lau kideko taldekatze hauek lagungarriak izango dira kideen artean rol desberdinak banatzeko.

Eguraldiaren arabera, kanpo-espazioak ere erabiliko ditugu norberak bere argazkiak eta marrazkiak egiteko.

C. Baliabideak:

iPada: informazioa bilatzeko, arloko [plastikagela.com](#) webgunea kontsultatzeko, Showbie aplikazioa erabiltzeko (zenbait ariketa bidaltzeko, autoebaluazioa egiteko Socrative aplikazioa txertatuta izango du), argazkiak eta bideoak egiteko, SketchBook aplikazioa irudi digitalak egiteko, Keynote aurkezpenak egiteko, Pages dokumentuak idazteko...

Orri zuriak eta kartoi-meheak marrazkiak egiteko. Ikasgelan erabilitako orriak egongo dira ikasleek euren zirriborroak egiterakoan orri horiek berrerabili ahal izateko. Ikasleek euren tresnak ekarriko dituzte: iPada, arkatza, margoak, zuzenkiak, artaziak, kola eta bestelakoak.

Ikasgelan inprimagailua dugu ikasleek euren irudi eta zirriborro digitalak inprimatu ahal izateko.



Ebaluazio-prozesua eta tresnak:

Proiektuan zehar, ebaluazioa modu desberdinetan egingo dugu:

Hasierako fasean: kubismoaren ikusizko baliabideak identifikatuz, sailkatuz eta aztertuz. Talde osoko bileran eta ikasleen ekarpenak kontuan izanik. Showbien txertatutako Socrative aplikazio digitala erabiliz.

Garapen fasean: sormen prozesuan zehar egindako lanaren ebaluazioa eta autoebaluazioaren bitartez, hobekuntzak egiteko proposamenak aztertuz eta beharrezkoak diren egokitzapenak eginez. Talde osoko bileran eta ikasleen ekarpenak eta ikaslearen planteamendua eta zirriborroak kontuan izanik.

Azken fasean: errubrika, ikaslearen portfolioa eta erakusketarako egindako irudien ekarpenak kontuan izanik.

Proiektuaren lehenengo momentutik, ikasleek ebaluaziorako errubrika eta ebaluaziorako irizpideak eskuragarri izanen dituzte bai plastikagela.com webguneko *Autorretratu kubista* atalean, bai Showbien, eta ikas-egoeraren 1. jardueran hauen azalpena jasoko dute.



Jardueren sekuentzia garatua (ikasleentzako)

1. Jarduera

Azalpena:

Ikas-egoeraren, helburuen, landuko ditugun konpetentzia espezifikoen, jakintzen, ebaluazio-irizpideen, planteamenduaren eta baliabideen azalpena egitea.

Ikasturtean zehar, Plastika arloan erabiliko ditugun plastikagela.com webgunean eta Showbie aplikazioan ikas-egoerari buruzko informazioa erakustea eta azalpenak egitea.

Kubismoaren historiari eta ezaugarriei buruzko, eta kubismo estiloko irudiei buruzko informazioa bildu eta hautatzea nola egin azaltzea. Kubismoaren ezaugarriak aurrerago aztertuko ditugu.

Kubismo estiloko irudiak bilatzea.

2. Jarduera

Azalpena:

Kubismo estiloko irudiak eta hauei buruzko informazioa hautatu, bildu eta aurkeztea. Ikasleak lortutako informazioa era honetan aurkeztuko du Showbieren; koadro bakoitza artxibo batean bere izenburua, egilea eta urtearekin izendatuz. Aukeratutako kubismoko irudien artean, emakumezkoenak bereziki baloratuko dira.

Kubismoa eta bere ezaugarriei buruzko informazioaren bilketa eta hautaketa egitea.

3. Jarduera

Azalpena:

Kubismo estiloko irudi desberdinak, ikasleek edo irakasleak proposatutakoak, ikusi eta aztertuko ditugu, irudiotan ikusizko baliabideen (lerroen, formen, koloreen eta kubismoaren ezaugarriak diren ikus-puntuaren, perspektibaren, sakontasunaren, figurak deskonposatzearen eta figura-hondoa erlazioaren) identifikazioa, sailkapena eta azterketa eginez genero-isuririk gabe, jakin-mina, sentsibiltatea eta errespetua erakutsiz.

Socrative aplikazioaren bitartez kubismoaren ezaugarrien eta kubismo estiloko irudi batzuen azterketa egitea.

4. Jarduera

Azalpena:

Autorretratu kubista egiteko hastapenak: argazkia eta marrazkia, teknika digitala eta ohikoaren arteko harremana.

Hasierako ideiak eta zirriborroak: irudietan kubismoaren ikusizko baliabideen azterketa eta erabilera egitea.



5. Jarduera

Azalpena:

Autorretratu kubista egiteko hastapenak: argazkia eta marrazkia, teknika digitala eta ohikoaren arteko harremana.

Hasierako ideiak eta zirriborroak: irudietan kubismoaren ikusizko baliabideen azterketa eta erabilera egitea.

Irudia osotasun bezala ulertuz, eta kubismoaren ikusizko baliabideak irudiaren atalak bezala, Pentsamenduan Oinarritutako *Atalak eta osotasuna* Trebetasuna landuko dugu. Ikasleek trebetasunean lortutako ikaskuntza kubismoaren ikusizko baliabideak euren irudietan era egokian aplikatuz erakutsiko dute.

6. Jarduera

Azalpena:

Autorretratu kubista egiteko hastapenak: argazkia eta marrazkia, teknika digitala eta ohikoaren arteko harremana.

Hasierako ideiak eta zirriborroak: irudietan kubismoaren ikusizko baliabideen azterketa eta erabilera egitea.

7. Jarduera

Azalpena:

Prozesuan zehar egindako lanaren ebaluazioa eta autoebaluazioa: talde osoko bileran, ikasle batzuen zirriborroak ikusi eta aztertuko ditugu, irudiotan ikusizko baliabideen identifikazioa, sailkapena eta azterketa eginez eta kideen lanekiko errespetua erakutsiz. Zirriborroetan, ikasleek planteatutako hasierako ideiak lortzeko kubismoaren ikusizko-baliabideak era egokian erabili diren aztertuko dugu.

Ondoren, ikasle bakoitzak bere lanaren autoebaluazioa egingo du, planteatutako hasierako ideiak lortzeko kubismoaren ikusizko-baliabideak era egokian erabili diren aztertuz lanaren garapena ebaluatzeko.

8. Jarduera

Azalpena:

Sormen prozesuaren autoebaluazioaren ondoren, hobekuntzak egiteko proposamenak aztertzea eta beharrezkoak diren egokitzapenak egitea, planteatutako hasierako ideiak era egokian lortzeko kubismoaren ikusizko-baliabideak era egokian erabiliz.

Zirriborroak egiten jarraitzea.



9. Jarduera

Azalpena:

Sormen prozesuaren autoebaluazioaren ondoren, hobekuntzak egiteko proposamenak aztertzea eta beharrezkoak diren egokitzapenak egitea, planteatutako hasierako ideiak era egokian lortzeko kubismoaren ikusizko-baliabideak era egokian erabiliz.

Zirriborroak egiten jarraitzea.

10. Jarduera

Azalpena:

Hobekuntzak ezarri ondoren, eta horretarako landutako zirriborroetan oinarrituz, azken emaitza lantzea.

11. Jarduera

Azalpena:

Hobekuntzak ezarri ondoren, eta horretarako landutako zirriborroetan oinarrituz, azken emaitza lantzea eta aurkeztea.

12. Jarduera

Azalpena:

Portfolioak egitea: hasierako planteamendua eta ideiatik hasita azken emaitzaraino paperean egindako lanaren bilduma osatzea. Paperean egindako lanaren argazkiak eginez, portafolio digitala nola egin azaltzea, ereduak ikusiz eta aztertuz.

Paperean egindako lanaren argazkiak eginez, portafolio digitala Keynote aplikazioan sortzea.

13. Jarduera

Azalpena:

Ikasleek euren kideei eta irakasleari proiektua eta azken emaitza aurkeztea talde osoko bileran. Proiektuaren aurkezpena egiteko portafolio digitala proiektatuko dute.

14. Jarduera

Azalpena:

Ikasleek euren kideei eta irakasleari proiektua eta azken emaitza aurkeztea talde osoko bileran. Proiektuaren aurkezpena egiteko portafolio digitala proiektatuko dute.



15. Jarduera

Azalpena:

Taldean **Autorretratu kubista** erakusketa antolatzea:

- Irudien aukeraketa: zirriborroak eta azken emaitzak. Argazkiak eta marrazkiak, teknika digitala eta ohikoaren arteko harremana.
- Proiektuan burtutako prozesuaren azalpena eta honen ereduak.
- Kubismoaren ezaugarrien azalpena eta hauen aplikazioa gure irudietan.
- Sormen prozesuaren ebaluazioan zehaztutako hobekuntzak egiteko proposamenen ereduak.

16. Jarduera

Azalpena:

Autorretratu kubista erakusketaren bisita gidatuak eta azalpenak burutzea.